# ZINEFORUM

### Dokumentalaren emanaldia eta ondorengo solasaldia

# El enigma Agustina

**Bilbon, 2025eko irailaren 26ean**. *El enigma Agustina* dokumentala proiektatuko da Bilboko Bizkaia Aretoa-EHUren Mitxelena aretoan. Sarrera doan izango da, edukiera bete arte. Dokumentala FECYT Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak eta IAA-CSIC Andaluziako Astrofisikako Institutoak finantzatutako ikus-entzunezko ekoizpena da.

XX. mendearen lehen hereneko Europako zientziaren lorpen nabarmenetako batzuk errepasatzen ditu filmak, Agustina Ruiz Dupont pertsonaiaren bidez. Granadako Almuñecar udalerrian jaio eta Parisen hazitako fisikari honek lehen mailako ikertzaile bihurtzea lortu zuen eta bere garaiko zientzialari europar garrantzitsuenekin egon zen kontaktuan.

Ordura arte berari buruzko erreferentzia historikorik ez bazegoen ere, Albert Einstenek eta Marie Curiek sinatutako gutun batzuetan bai aipatzen zen Ruiz Dupont eta, aipamen haietatik abiatuz, dokumentalaren egileek zientziaren historian zehar ibilbide bat egin dute, fisika edo kimika bezalako diziplinen garapenerako funtsezkoa izan zen garaia islatuz. Espainian zientzia nolakoa izan zitekeen hausnartzeko ere balio du filmak; izan zitekeena baina, gerragatik eta erregimen frankistagatik, izan ez zena. Emakumezkoek gizonezkoen mende zegoen mundura iristeko egindako borroka ere kontatzen digu dokumentalak.

**Emilio José García Gómez-Caro** eta **Manuel González García** astrofisikoek zuzendu dute proiektua. García Gómez-Caro IAA-CSICeko komunikazio burua da eta González García Granadako Zientzien Parkeko egitasmoen eta programen kudeatzailea. Dokumentalaren protagonista **Natalia Ruiz Zelmanovitch** da, CSICek eta INTAk sortutako Astrobiologiako Zentroaren (CAB) Kultura Zientifiko eta Berrikuntzako Unitateko arduraduna. Dokumentalaren emanaldiaren ondoren, ordu erdiko solasaldia egingo da sortzaileekin eta protagonistarekin. Solasaldia **Eva Caballero** kazetariak gidatuko du, Radio Euskadiko *La Mecánica del Caracol* irrati programako zuzendaria.

Jarduera hau **Bilbo Zientzia Plaza 2025** ekimenaren parte da, EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatzen duena Bilboko Udalaren eta Euskampus Fundazioaren babesarekin eta Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila, Donostia International Physics Center (DIPC), Metro Bilbao eta EiTB erakundeen laguntzarekin.

--

**Zineforum**: *El enigma Agustina* dokumentalaren emanaldia eta ondorengo solasaldia

**Lekua:** Bizkaia Aretoa-EHU. Mitxelena auditorioa.
**Data:** Irailak 30, asteartea.
**Ordutegia:** 18:30etik 20:30era.
**Proiekzioa**: 90 minutuko iraupena.
**Ondorengo solasaldia**: 30 minutu.
**Parte-hartzaileak:** Emilio José García eta Manuel González, dokumentalaren egileak, Natalia Ruiz Zelmanovitch, antzezlea, eta Eva Caballero, dinamizatzailea.
**Hizkuntza**: gaztelania.
**Entrada**: doan, eserlekuak bete arte.

# CINEFÓRUM

### Proyección del documental y coloquio posterior

# El enigma Agustina

**Bilbao, 26 de septiembre de 2025.** El documental *El enigma Agustina*, una producción audiovisual financiada por la Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología (FECYT) y el Instituto de Astrofísica de Andalucía (IAA-CSIC), podrá verse el **martes 30 de septiembre** a las 18:30 horas en el auditorio Mitxelena del Bizkaia Aretoa-EHU de Bilbao. La entrada es libre hasta completar aforo.

La película repasa algunos de los logros más destacados de la ciencia europea del primer tercio del siglo XX a través del personaje de Agustina Ruiz Dupont, física nacida en Almuñécar (Granada) y criada en París que logró convertirse en una investigadora de primer nivel, relacionándose con los científicos europeos más relevantes de su tiempo.

A partir de unas cartas firmadas por Albert Einstein y Marie Curie en las que se menciona a Ruiz Dupont -de quien no se tenía ninguna referencia histórica previa- los autores realizan un recorrido por la historia de la ciencia en una época clave para el desarrollo de disciplinas como la física o la química. La película sirve también para reflexionar sobre cómo podría haber sido la ciencia en España y no fue a causa de la guerra y del régimen franquista, así como de la lucha de las mujeres por acceder a un mundo dominado por hombres.

El proyecto ha sido dirigido por los astrofísicos **Emilio José García Gómez-Caro**, responsable de comunicación del IAA-CSIC y **Manuel González García**, gestor de planes y programas del Parque de las Ciencias de Granada. El documental está protagonizado por **Natalia Ruiz Zelmanovitch**, responsable de la UCCI del Centro de Astrobiología (CAB, CSIC-INTA).

Tras la proyección del documental, tendrá lugar una charla coloquio de media hora de duración en la que intervendrán sus creadores junto a la intérprete. El coloquio estará dinamizado por la periodista **Eva Caballero**, directora del programa *La Mecánica del Caracol* de Radio Euskadi.

Esta actividad forma parte de **Bilbo Zientzia Plaza 2025**, una iniciativa de divulgación científica organizada por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU, con el patrocinio del Ayuntamiento de Bilbao y Euskampus Fundazioa, y la colaboración del Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación del Gobierno Vasco, Donostia International Physics Center (DIPC), Metro Bilbao y EiTB.

--

**Cinefórum**: Proyección y coloquio posterior del documental *El enigma Agustina*

**Lugar:** Bizkaia Aretoa-EHU. Auditorio Mitxelena.

**Fecha:** martes, 30 de septiembre.
**Horario:** de 18:30 a 20:30h.
**Proyección**: 90 minutos de duración.
**Coloquio posterior**: 30 minutos.
**Intervienen:** Emilio José García y Manuel González, creadores del documental; Natalia Ruiz Zelmanovitch, intérprete y Eva Caballero, dinamizadora.
**Idioma**: castellano.
**Entrada**: libre hasta completar aforo.